

# Eguberriak Brunarekin





Gabonetan egin etxeko guztiei tokia!  
Ikusi gure mahai eta aulki tolesgarriak.



4 aulki  
15zm-tan

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)

RPS 183/12



Uzuri  optika audio

VARILUX XR series...

Erosi zure varilux XR desing  
betaurrekoa eta **bigarren parea**  
**DOAN** izango duzu.

(Betaurreko marka guztietan)

San Frantzisko, 21 - Elgoibar - 943 740 359

[www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

**Txanda hartu! Anenduaren 20ra arte!**

Bueltan da ELGOIBARKO IZARRAREN

# TONBOLA

2.400 erregalu baino gehiago...

Aurreko urteetan  
**TONBOLAK** izan duen estimazioak  
bultzatuta, **abenduaren 24an, 11:00etatik aurrera**,  
Elgoibarko Izarraren tonbola  
jarriko dugu **Kalegoen plazan**.  
Hasi gara opariak jasotzen! Eskerrik asko!



Botilak



Txoteko Ezpata  
biniloa



Marrazteko  
kit-ak



Ludotekako  
kamisetak



Panpina



Belarritakoak



Izarak



Koadroa



Koademoak



Janariarentzako  
zorroak



 643 499 169

 943 741 626

 [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus)

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.  
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoan erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta, Nagore Cancio **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



[facebook.com/barrenaldizkaria](https://facebook.com/barrenaldizkaria)



[x.com/barreneus](https://x.com/barreneus)



[instagram.com/barrenaldizkaria](https://instagram.com/barrenaldizkaria)



[youtube.com/@Elgoibarrennet](https://youtube.com/@Elgoibarrennet)

Maialen Sanchez

Idazlea

## Ahoa itxita eta ikuspegia zabalik



**"Ezagutzen edo ulertzen ez dugun egoera bat ikusten dugunean, zabaldu ikuspegia eta itxi ahoa"**

Hitz egiteko gaitasuna dugunez, edozer gairi buruz berba egiteko eskubidea dugula pentsatzen dugu, baita besteen bizitzei buruz ere. Are, filtro barik egiten dugu. Horrek eragin ditzakeen ondorioetan erreparatu gabe. Ardura gure gain hartzea kostatzen zaigu, baina garrantzi handikoa da.

Denok eman izan dugu pertsona bati buruzko iritzia edo komentatu izan dugu zeozer. Bestearen janzkerak edo hitz egiteko, jokatzeko edo mugitzeko moduak harritu gaituelako egin dugu. Hau guztia noizbait egin dugun gauza da, ez dago gaizki, ez, baina errespetua galdu dugula sentitzen dut. Amain ematen diogu geure buruari eta ez diogu ematen kritikaturtako pertsonaren jokabidearen zergatia aztertzeke aukerarik.

Duela egun batzuk, gure herrian paseatzen nenbilela, bi emakumerekin gurutzatu nintzen; elkarri helduta zihoazen, bata bestearen besoari indarrez helden, bietako norbait lurrera eror ez zedin. Ez zuten kezkatzeko zantzurik erakusten; horrela ibiltzera ohituta zeudela zirudien. Ondotik pasatu eta nire aferetan jarraitu nuen, baina, nire inguruan, kalean zeuden pertsona askok jakin-min handiegiz begiratzen zioten eszenari. Gizon bat entzun nuen mozkortuta zihoazela esanez, eta lotsa sentitzen zuela entzun nion beste bati.

Handik egun batzuetara eszena horretako protagonistetako bat ezagutu nuen. Gure herria aldamenekoarekin lotzen duen pasealekua inauguratu zutenetik, bi lagunak, haurrak eskolan laga eta egunero, ibilaldiaren ondoren kafea hartzera etortzen dira. Orain dela hiru hilabete, batek burmuineko isuri txiki bat euki zuen. Bere lagunak egunero laguntzen dio janzten eta gure herrira etortzen dira, ohiturarekin jarraitzeko. Buelta, treneg egiten dute, normaltasun berrira egokituz. Argi dago mozkorturik ez zeudela! Ezagutzen edo ulertzen ez dugun egoera bat ikusten dugunean, zabaldu ikuspegia eta ahoa itxi!



Zuen kekek, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)



943 744 112



688 655 658




#### **Errotonda ez da aparkatzeko lekua:**

"Txarridunako errotondan aparkatzen du jende askok, eta traba handia egiten dute auto horiek. Herri barruko autobusak errotondan dauka geltokia, eta gaizki aparkatuta egoten diren auto horien ondorioz, autobusa bigarren ilaran geratu behar izaten da askotan. Zirkulazioa oztopatzen du, eta arrisku uneak sortzen dira. Aste honetan bertan, kamioi handi batek ia jo du autobusa!. Udaltzainek askotan beste aldera begiratzen dute, baina auto horien jabeei esan egin behar zaie hortik alde egiteko eta bestela, isunak jarri. Herri barruko autobusa adineko jendeak erabiltzen du bereziki, eta segurtasunez erabiltzeko baldintzak bermatu behar dira".



#### **Etxeko atarian txakur kakak:**

"Etxeko atarian txakur kakak aurkitu ditut, beste behin. Lotsagarria da! Eguerdi aldean egin zuen kaka txakurren batek gure etxe aurrean, eta iluntzean oraindik han jarraitzen zuten kaka mokordoek. Txakur jabeei eskatu nahi diet adi egoteko. Nik uste dut askotan txakurrak aske lagatzen dituztela eta konturatu ere ez direla egiten kaka non egiten duten, baina beraien ardura da hori zaintzea eta kaka batzea. Nazkagarria da".



#### **Aparkaleku falta handia dago Elgoibarren:**

"Duela pare bat aste gutun bat argitaratu zuen BARRENEK, eta zioen herri honetan gero eta zailagoa dela aparkatzea. Guztiz ados nago han esaten zenarekin, eta berretsi egiten dut han esandako guztia. Autoak ugaritzen ari dira, eta aparkalekuak gutxitzen. Gainera, gero eta TAO zona gehiago jartzen ari dira, eta horrek ere zaildu egiten du aparkatzea. Garai batean Udalak bazeukan lurpeko aparkalekuak egiteko proiektu bat eskuartean, baina bat-batean ez da horri buruz ezer esaten.

Nire ustez, behar da herrian lurpeko aparkaleku bat. Ermuan ere badago, eta ordu batzuetan debaldekoa da gainera. Urazandin ere hutsik dago Anayak enpresa zegoen lursaila. Zergatik ez du Udalak akordio bat egiten hango jabearekin aparkaleku gisa erabili ahal izateko, King Kong zubiko obrak irauten duen bitartean behintzat? Kendu dituzten aparkalekuen orde z ondo etorriko liriteke. Sigman ere TAO sistema jartzea ez dut ulertzen, herritik aparte dagoen zona batean ere ezin dugu egun osorako aparkatu?. Garajerik ez dugunontzako etsigarria da herri hau".



#### **Mintxetan argirik gabe jarraitzen dugu:**

"Hilabete pasatu da Mintxetako argi faltaren kexa jarri genuela eta oraindik ez dute ezer egin! Farola pare bat konponduta soluzionatu daiteke egoera, eta

uste dugu ez dela asko eskatzea. Neguan oso goiz iluntzen du, eta lanean ari garenok ez daukagu egun argiz ibiltzera joateko aukerarik. Eskertuko genuke gure eskaera aintzat hartzea".

# 'Ilargia eta desioaren artean' antzezlana estreinatuko du Taupadak gaur zortzi Herriko Antzokian

**A**ntzezlana berri batekin datorkigu Taupada, eta datorren barikuan, hilaren 20an, estreinatuko du Herriko Antzokian: *Ilargiaren eta desioaren artean*. Ikuskizun narratibo bisuala prestatu dute, eta pertsonaia ezberdinen sentimenduetatik maitasuna zer den eta haren bide bitxiak zein diren azalduko dute. Ikuslea harritu eta liluratu nahi dute arduradunek. Edurne Lasa zuzendariak nahi luke ikuskizuna atsegina izatea ikusleentzat, gozamenekoa eta emozioak astintzea: "Gure ikuskizunarekin erakutsi nahi dugu maitasunak edozein muga gainditzen dituela, fisikoa, emozionala nahiz soziala". Emozio eta pentsamenduen artean murgilduko dira, eta ikuslea etxera "benetako" zerbaitekin itzultzea nahi dute: "Antzerki mundu honetan murgilduta gaudenok, jakin badakigu antzezlana bat iritsi den jakiteko denboratxo bat behar izaten dugula, iruzkin berezien bat jasotzen dugunean. Garrantzitsuena, denboraren buruan, norbaitek antzezlana markatzen duen uneren bat gogoraraztea da; xehetasunen bat ez zitzaiola oharkabean pasatu adieraztea". 20:30ean izango da emanaldia, Herriko Antzokian, eta dagoeneko eskuratu daitezke sarrerak [herrikoantzokia.eus](http://herrikoantzokia.eus) atarian.

Obra honetan parte hartuko duten aktoreak hartuko duten aktoreak hauek dira: Eduardo Ayesta, Nerea Cuende, Dani Zelaia, Ibai Leon, Gorka Luna, Ruben Markina, Leire Apellaniz, Rosa Mata eta Teresa Arakistain. Teknikari lanak Joxe Mari Larrañagak egin ditu eta Edurne Lasak zuzendu du obra. Obra honetan parte hartuko duten aktoreak hartuko duten aktoreak hauek dira: Eduardo Ayesta, Nerea Cuende, Dani Zelaia, Ibai Leon, Gorka Luna, Ruben Markina, Leire Apellaniz, Rosa Mata eta Teresa Arakistain. Teknikari lanak Joxe Mari Larrañagak egin ditu eta Edurne Lasak zuzendu du obra.



I.URTEURRENA

**Jose Mari Ansola Ansola**

*"Kortazabal"*

2023ko abenduaren 6an hil zen 73 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, abenduaren 15ean, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretanoi, alde zurretik eskerrak.

***Alaitasunaren iturritik  
edan genuen elkarrekin,  
oroimenean izango zara  
zu beti gurekin.***

Etxekoak



## 'Gabonetan oparitu momentuak eta ez megak' kanpaina hasi du Mendaroko Altxa Burua Taldeak

**A**ltxa Burua taldeak eta Mendaroko Udalak antolatuta *Mugikorren auzia* izeneko formakuntza-saioak izan dituzte azken bi asteotan Mendaron, bi hizkuntzatan. Hezkuntza kontuetan eta osasun digitalean aditua den Telmo Lazkanok eman ditu saio horiek, eta 50 lagun baino gehiagok parte hartu dute haietan. Interneterako sarrera duten gailuak ematea atzeratzea, eskolak sakelako telefonorik gabeko arnagune bihurtzea, hezkuntzaren digitaliazioaz gogoeta egitea, helduak eta seme-alabak teknologiaran erabilera egokian trebatzea eta herritarrak kontzientziatzea dituzte helburu Altxa Burua taldekoek, eta hain justu ere, azken horri erantzuten dio Gabonetako kanpainak, kontzientziazioarenari.

Arduratuta daude sakelako telefonoen eta oro har Internetera sarbidea duten gailuen inguruan sortzen ari diren arazoekin eta eragiten duten menpekotasunarekin, eta horren gaineko kontzientzia sustatzeko *Oparitu momentuak eta ez megak* kanpaina hasi dute, Gabonei begira. Jakin badakite kulturalki onartuta dagoela sakelako telefonoa oparitzea seme-alabei adin jakin batera iritsitakoan edota ondo egindako zerbaitengatik saritu nahi direnean, baina halako opariek arrisku asko ezkututzen dituztela ohartarazi nahi dute. Eta horretarako hainbat galdera plazaratu dituzte, hausnarketarako: Haur eta gazteek badakite sare sozialek nolako manipulazio-estrategiak erabiltzen dituzten gure atentzioa erakartzeko eta mantentzeko? Badakite



erreferentzetzat dituzten *tik toker*, *gamer* eta influentzerrek esaten eta egiten dutenarekiko kritiko izaten? Badute horretarako erremintarik eta eskarmenturik? Emozionalki eta afektibo-sexualki hezi ditugu? Sakelako telefonoen erabilera kritiko eta arduratsua egiteko prestatu al ditugu? Prestatu al ditugu eta prestatu al gara gu geu ere presio sozialari aurre egiteko? Nola egiten diogu aurre? Konturatu al gara pantailari begira ematen dugun denbora falta izaten dugula oinarrizko beste gauza asko egiteko?

Ohartarazi dute, era berean, geroz eta ez gutxiago direla teknologiarik gabeko espazioak eta uneak familietan, seme-alabekin kalitatezko denbora pasatzeko eta egunerokotik deskonektatzeko, eta Gabonetako opariak aukeratzten hasi aurretik guzti horren inguruan pentsatzeko eskatu dute, bai eta *mugikorra*, *noiz?* galdetu ordez *mugikorra*, *zertarako?* galdetzeko proposatu ere.

### Abenduaren 17an izango da Ameikutz Musika Eskolako Eguberrietako jaialdia



Urtero moduan, Eguberrietako kontzertu berezia emango dute Mendaroko Ameikutz musika eskolako ikasle eta irakasleek abenduaren 17an. San Agustin kulturgunean izango da kontzertua, 19:00etan, eta musika eskolako ikasle guztiek parte hartuko dute, taldeka. Musika Eskolak sarrerak banatuko dizkie ikasleei eta aretoa bete arteko gainerako sarrerak atarian bertan banatuko dituzte.

## Egoera zaugarrian dauden umeentzako opariak jasotzeko kanpaina, Elgoibarren



**G**abonetako Zuhaitz Solidarioa kanpaina hasi du Elgoibarko Udalak Gurutze Gorriarekin lankidetzan, herrian bertan egoera zaugarrian dauden 40 haurrentzako opariak biltzeko. Bigarren urtea da ekimen hau antolatzen dutena. Kanpainaren barruan gabonetako zuhaitz solidario bi jarriko dituzte herrian, bata HAZ-SACen eta bestea Gotzon Garate Udal Liburutegian, eta haietan etxetxo itxurako apaingarri solidarioak eskegiko dituzte. Apaingarri horien barruan oparia jasoko duen haur bakoitzaren gustuei eta haien ezaugarri buruzko informazioa jarriko dute, kanpainan lagundu nahi dutenek zer opari erosi jakin dezaten. Zuhaitzak abenduaren 18ra arte egongo dira esandako bi leketan, eta opariak abenduaren 24an banatuko dizkiete umeei.

Hona parte hartzeko jarraibideak:

1. Gabonetako zuhaitz solidarioa dagoen lekura joan eta aukeratu apaingarri bat.
2. Erosi opari berri bat, sexistak edo belikoak saihestuz, eta, ahal dela, jolas sinbolikoa sustatzen duten jostailuak aukeratu, apaingarri txartelean aurkituko dituzun jarraibideen arabera.
3. Idatzi dagokion kodea oparian.
4. Itzuli gabonetako zuhaitz solidarioa eta jarri oparia bertan. Apaingarria norberarentzat da, elkartasun-kanpaina honetan parte hartu izanaren sinbolo gisa.

## Elgoibarko eta Eibarko taberna eta jatetxeetara zabaldu dute hondakinak atez ate biltzeko proiektua



Atez ate hondakinak biltzeko sistemaren bigarren fasea hasi du Debabarreneko Mankomunitateak, hondakinaren kudeaketa hobetzeko. Irailaren 16an hasi zuten lehenengo fasean, Eibarko eta Elgoibarko 40 fruta-denda eta jateko-dendatan hasi ziren atez ate hondakin organikoak eta ontzi arinak batzen, eta bigarren fase honetan 120 taberna, jatetxe eta kafetegira zabaldu dute ekimena: Eibarko 80tara eta Elgoibarko 40ra. Mankomunitateak 50 litroko bina ontzi eman dizkie kanpainara batu direnei, bata horia, ontzi arinentzako, eta bestea, marroia, hondakin organikoentzat, eta lagun bat izendatu du atez ate ontzi horiek batu eta batutakoa kaleko edukiontzietara eramateko. Astelehenetik zapatara pasatzen da langile hori establezimenduetatik hondakin organikoak batzera, eta astean hiru egunetan egiten du ontzi arinen bilketa, martitzen, eguen eta zapatutan. Ontziak jasotzeaz gain, tabernariak hondakinak ondo bereizten dituztela ere zaintzen du. Modu horretan establezimendu horietan jadunbide egokiak hartzea bultzatzen du, sistemak ez duelako lagatzen hondakinak sailkatu gabe entregatzen.

Nagusiki bi helburu ditu, beraz, proiektuak: batetik, birziklatze-tasak hobetzea eta zabortegietan amaitzen duen hondakin-kopurua murriztea eta bestetik, kalean hondakin gutxiago pilatzea eta garraioaren bidez sortutako emisioak minimizatzea. Sei hilabeterako proiektua da, Elgoibarren eta Eibarren probatzen ari direna, baina luza daitekeena, bai eta bailarara zabaldu ere, emaitzak aztertu ondoren baloratzen badute Mankomunitateak egin beharreko esfortzu ekonomikoa balekoa dela eta ontzat emanez gero estandarizatzea.

## Osakidetzari buruzko hitzaldia antolatu dute Elgoibarren, hilaren 18rako



Osakidetzaren gaur egungo egoerari buruzko hitzaldia antolatu dute Duintasanak eta 24/7 Plataformak Elgoibarren abenduaren 18rako (eguztzena), *Zer gertatzen ari da Osakidetzan?* izenburupean. Elgoibarko Kultur Etxeko hitzaldi-gelan izango da hitzaldia, 18:30ean, eta Rebeka Ubera EH Bilduren legebiltzarkidea, Larritz Arriola familia-medikua eta Karlos Ibaguren EH Bilduren Osasun idazkaritzako kidea izango dira hizlariak. Aurreratu dute Osakidetzaren egoera orokorrari erreferentzia egingo diotela solasaldian, baina Elgoibarko anbulatorioaren egoerari eta ordutegiari erreparatuko diotela. Astegunetan 17:00etan ixten dute eta asteburuetan itxita egoten da. Antolatzaileek agindua ez betetzea egozten diote Osakidetzari, murrizketa pandemia garaiko egokitzapen bati zor zitzaiola esan zutelako.

### Odol ateratzeak egingo dituzte gaur, barikua, Elgoibarren

Odol Emailen Elkartetik jakinarazi dute gaur egingo dituztela odol ateratzeak Elgoibarren, 16:30etik 20:30era bitartean, Jubilatuen Biltokian. Odola emateko, baina, txanda hartu behar da. Txanda hartzeko deitu edo whatsapp idatzi 623 328 408 telefonora.

### Elgoibar eta Mendaro arteko trenbidea konpontzeko lanak hasi ditu Euskal Trenbide Sareak

Astehenean hasi zituen Euskal Trenbide Sareakek Elgoibar eta Mendaro arteko trenbidea berritzeko lanak. Bilbo-Donostia trenbideko 54+740 eta 55+209 kilometro tarreak dira berritu asmo dituztenak. Elgoibarren, Toletxegainen hasiko dituzte lanak, herrigunerantz. Aurreikusituenaren arabera, bi astez egingo dute lan, eta ondoren, eten bat egingo dute, Gabonetako jai-egunetan. Errege Eguna igarota itzuliko dira lanera langileak. Gauzez egingo dituzte lanak, beraz ez diote eguneko tren zerbitzuari eragingo.

### Orri-markagailu lehiaketa antolatu du Gotzon Garate Udal Liburutegiak

Elgoibarren erroldatuta dauden edo ikasten ari diren haur eta gazteei zuzendutako lehiaketa da, eta bi kategoria bereiztu dituzte: LH 5. mailara artekoena eta LH 6. mailatik gorakoentzako. *Bruna, gure laguna da* izango da gaia eta parte-hartzaileek esaldi hori islatzen duen irudi original bat irudikatu beharko dute. Diseinuak lema badu, ilustrazioan integratuta egon beharko da eta orri-markagailuaren neurriak 210 milimetroko luzera eta 50 milimetroko zabalera izango dute, eta paperean edo formatu digitalean (PDF) aurkeztu ahal izango dira. Lanak Gotzon Garate Udal Liburutegian entregatu beharko dira edo posta elektronikoz bidali [liburutegia@elgoibar.eus](mailto:liburutegia@elgoibar.eus) helbidera. Bi kasuetan, ezinbestekoa izango da parte-hartzailearen izena, abizenak eta kurtsoa adieraztea. Aurkezteko epea 2025eko urtarrilaren 31n amaituko da.

Paula Heras egur tailerreko irakasleak, Ane San Martin arte tailerreko irakasleak eta Gemma Monreal margolari elgoibartarrak osatuko dute epaimahaia, eta kategoria bakoitzeko diseinu irabazle bat hautatuko dute. Maila bakoitzeko sarituek Txankakuaren 150 euroko bale bana jasoko dute, eta lan saritua Gotzon Garate Udal Liburutegiak 2025erako argitaratuko duen orri-markagailuan agertuko da.



## Amaia Arrieta Vallejok irabazi du Danobatgroupen lehiaketa



Aurten ere, Danobatgroup Kooperatiba Taldeak Lehiaketa antolatu du Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko, *Euskaraz izango gara* lelopean. Lehiaketa gizarte osoari eta bereziki, taldeak lantegiak dituen herrietako herritarrei zuzenduta egon da, eta Amaia Arrieta Vallejo elgoibartarrak irabazi du saria: bi pertsonarentzako dastatze-menua Belaustegi Jatetxean. Orain dela 24 urtetik hona ari da kooperatiba talde hau bere egunerokoa euskaraz izateko lanean.

## Egondo enpresako zuzendaritzak eta langileek akordioa lortu dute



LAB sindikatuak jakinarazi duenez, Elgoibarko Egondo enpresan akordioa lortu dute. Enpresako langileek mobilizazioak hasi zituzten azaroaren erdi aldera, lan ituna berritzeko zuzendaritzarekin zituzten negoziazioek emaitzarik eman ez zutela jakinarazi eta gero. LAB sindikatutik azaldu dutenez, joan den barikuan lan ituna berritzeko proposamena aurkeztu zien enpresako zuzendaritzak langileei, eta proposamena onartu zuten haiek. "Blokeo" egoera askatzeko hiru astez egin dituzten mobilizazioek eragin zuzena eduki dutela diote LABeko ordezkariak, euren ustez protestak izan baitziren "irtenbide bakarra" negoziatorako ate guztiak itxita zeudenean.

## Jazarpen sindikala salatu dute Teknicalde lantegian

Teknicalde enpresako LABeko delegatu sindikalak jazarpen sindikala salatu du sindikatuak. Enpresako hauteskunde sindikalak irabazi ostean, industrigunean delegatuaren kontrako pankartak azaldu direla salatu dute.



## Altzolako Auzo Elkarteak hainbat ekintza antolatu ditu abendurako

Altzolako Auzo Elkarteak bere dinamikari eutsiko dio abenduan ere, eta hainbat jarduera antolatu ditu datozen egunetarako. Bihar, Eibarko armagintza museora egingo dute irteera. Goizez joango dira, 10:00etan, eta eguerdi alderako itzultzea aurreikusitako dute. Hilaren 21ean, berriz, Olentzero eta Mari Domingiren bisita izango dute auzoan, eta San Tomas eguna ospatuko dute beraiekin batera. Azkenik, abenduaren 27rako Eibarko ertzain etxea bisitatzeko irteera antolatu dute. Goizpasa joango dira Eibarrera, eta 13:00ak alderako itzuliko dira. Ekitaldi hauei buruzko informazioa eskuratzeko ondorengo telefonora deitu behar da: 635 753 447.

# EUSKARA PLANEK ERAGIN POSITIBOA DUTE ENPRESEN LEHIAKORTASUNEAN

✍️ Ainara Argoitia

**Euskara planek enpresen lehiakortasunari ekarpenik egiten ote dioten aztertzeke eta neurtzeke ikerketa egin dute Danobat, Ikerlan, Eika eta Fagor Electronica kooperatibetan, EMUN Aholkularitzak sustatuta eta Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagunduta. Intuizio batetik abiatu ziren lanean 2023. urte hasieran, eta teorizatu, aztertu eta esperimintatu ostean ondorioztatu dute baietz, lehiakortasunerako "palanka" izan direla euskara planak lau enpresotan; alegia, enpresaren lehiakortasunari eragiten dioten aldagai batzuetan ekarpena egin dutela euskara planek. Danobaten kasuan, bospasei aldagaitan.**

Enpresen lehiakortasuna ulertzeko modua aldatu egin da azkeneko 40 bat urtean, eta ekonomiari bakarrik begiratzetik beste aldagai batzuk ere kontuan hartzera pasatu dira, besteak beste aldagai sozialak eta ingurumenekoak. Eta hain justu, aldagai guzti horietan euskara planek beren ekarpena egin duten susmo edo intuiziotik abiatu zuten Gehi ikerketa Emunekoek gure inguruko lau kooperatibatan. Uste zuten euskara planak dituzten enpresek zeharka beste helburu batzuk ere lortu dituztela, euskararen erabileran pauso esanguratsuak emateaz gainera; alegia, urratsak egin dituztela, besteak beste, langileen parte-hartzea, kohesioa, eta komunikazioa hobetzen, eta bi urteko ikerketa lanaren ondotik, baieztatu dute zuzen zebiltzala.

Ikerketak bi fase izan ditu, hasierako teorizaziotik: diagnostiko fasea eta esperimintazio fasea. Lehenengo fasean, ikerketan parte hartzen diharduten lau enpresetako euskara planak aztertu zituzten, horretarako analisi dokumentala, elkarriketa sakonak eta kontraste taldeak eginda. Eta



behin euskara planek lehiakortasunari egiten zizkioten ekarpenak zehaztuta, esperimintazio fasea hasi zuten gero, aztertzeke zer egin behar zuten ezberdin euskara planean, enpresari ekarpen handiagoa egin ahal izateko, bai euskararen helburuetan eta baita lehiakorragoa izateko kulturaren. Eta nor bere testuingurua eta errealitatea kontuan hartuta, erronka zehatz bana definitu zuten enpresetan, ondoren horretan eragiteko interbentzioa diseinatzeke eta martxan jartzeke.

Kooperatiba bakoitzak erabaki zuen euskara planetik zertan egin nahi zion ekarpena enpresari. Hala, langileen parte-hartzea handitzeke lan egingo zutela erabaki zuten Danobaten; ekipoen lanketan jartzea indarra Fagor Eletronican; kohesioa handitzean Ikerlanen eta kolektibotasuna sustatzean Eikan. Danobaten kasuan, bi lantegi edo negoziotan gauzatu dute esperimintazioa, sei hilabetez: trengintzako lantegian eta artezteko makinetakoan, eta prozesu horretan buru-belarri aritu diren Saioa Amuriza Danobateko Hizkuntza aholkulariak eta Ion Zabaleta Trengintzako Software eta Automatismo arduradunak eman digute egindakoaren berri.

## EUSKARA PLANEK EGIN DUTEN EKARPENA

Ikerketan parte hartu duten lau enpresetan egindako esperimintaziotik ondorioztatu dute guztira hamalau aldagaitan egin dutela ekarpena euskara planek, ondoko orrialdean, puntuz puntu eman ditugunetan:

1. Euskara planei esker kudeaketa integralean sakondu dute enpresek.
2. Enpresa bakoitzeko arlo ezberdinetako lankideek elkar ezagutzeko modua egin dute.
3. Euskararen kudeaketan ikasitakoek nazioartekotze prozesuetan hizkuntzen kudeaketa hobetu dute.
4. Ikusi dute enpresa iraunkorragoa egiten duela euskara eta beste zehar lerro batzuk lantzeak.
5. Langileen inplikazioa handitu dute, enpresako proiektu bateko parte direla sentiarazita.
6. Liderrek euskararekiko modu eredugarrian jokatzeko langileen atxikimendua handitu du.
7. Euskara planak aukera ematen du beste batzuekin proiektuak garatzeko.
8. Norberaren hizkuntzan lan egiteak langileen gogobetetzea handitzen du.
9. Pertsonen garapen pertsonala eta profesionala hobetzen dira.
10. Euskaraz lan egiteko aukera emateak langileak/talentua erakarri eta haien errotzea indartzen du.
11. Modu kolektiboan lan egiterakoan langileen talde-sentimendua areagotzen da.
12. Langileei lanean euskara ikasteko eta erabiltzeko aukera bermatzeak langileen aukera berdintasuna indartzen du.
13. Euskara planei esker inguruko lurraldearen garapenean ekarpena egiten dute enpresek.
14. Zerbitzua euskaraz eskainita edo euskaraz lan egiteko aukera eskainita ekarpena egiten diote enpresek euskararen biziberritzeari.

## ION ZABALETA ETA SAIOA AMURIZA

Danobateko Trengintza lantegiko software eta automatismo arduraduna, eta EMUNeko Hizkuntza aholkularia



Danobateko trengintza negozioan eta artezteko makinan lantegian gauzatu dute Gehi ikerketako esperientzia fasea, eta Ion Zabaleta eta Xabier Jauregi izan dira batean eta bestean prozesua gidatu dutenak. Haietako batekin, Zabaletarekin, eta Saioa Amurizarekin, Danobateko Hizkuntza aholkulariarekin, bildu gara ondorioak jasotzeko.



*Ion Zabaleta eta Xabier Jauregi.*

***“Ederra da Alemaniako bezero batek esatea hizkuntzan denbora inbertitzeko gai den enpresa sendoagoa eta errotuagoa dela”***

**Zer irizpideren arabera aukeratu zenituzten trengintza eta artezteko makinan sektoreak esperimeneziorako?**

**Ion Zabaleta:** Nagusiki bi irizpide hartu genituen kontuan: langile kopuru handia izatea negozioan

eta denak, arduradunak barne, euskara ulertzeko gai izatea.

**Euskara planaren bidez, langileen parte-hartzea handitzeko bidea landu nahi izan duzue zuek.**

**Ion Z.:** Bai, eta horretarako tokian tokiko euskara plan zehatzak definitu genituen bi negoziotan, modu parte-hartzaile batean. Lanean hasi aurretik, partaidetzaren inguruko formakuntza saioa jaso genuen halako prozesuetan aditua den pertsona baten eskutik. Definitu genuen zer zen parte-hartzea, diseinatu genuen plana, eta adostu genuen galdetegi bat sortzea, jakiteko, besteak beste, zein zen departamentuko kideek euskararekiko eta zehazki euskara planarekiko zuten sentipen orokorra, eta jakiteko, baita ere, prozesuan parte hartzeko prest ote zeuden eta, egotekotan, zertan. Gure taldean 25 bat lagun gara eta bidali genien denei galdetegia. Ondoren, talde eragilea sortu genuen. Askotariko jendea nahi genuen talderako, negozio barruan departamentu ezberdinak daudelako, bai eta adin eta perfil ezberdinetako langileak ere. Eta aukeratu genituen lagun batzuk, galdetu genien prest ote zeuden parte hartzeko eta prest agertu zirenezekin genien bilerei.

Diagnostikoaren irakurketa eta kontsultak eman zituen datuen irakurketa egin genuen lehenengo eta zehaztu genituen eragin eremua eta helburuak. Azken batean, negozioaren barruan euskara gehiago egitea zen helburu nagusia, eta bereziki, euskal hiztunek euskararekiko leial jokatzea. Hori lortzeko, batetik pentsatu genuen negozio barruan aldiro egiten ditugun bileretan eragin behar genuela, margena geneukalako hobetzeko. Erabaki genuen Eusle metodologia aplikatzea, bileretan parte hartzen zuten guztiek zutelako ulermen maila on bat. Eusle figura sortu genuen eta, inertziaz norbait gazteleraz hasiz gero, bilera eten eta eusleak gogoratzen zigun euskaraz egiteko konpromisoa hartua genuela. Bilera bukaeran, balorazioa ere egiten zuen. Eta egia esan aldaketa igarri zen, bereziki hasieran. Ikusi genuen ordura arteko inertiak aldatzeko gai ginela, behin gaia mahai gainean jarrita.

Bestetik, eguneroko komunikazioan eragitea ere jaso genuen helburuetan. Horretarako *hilabete bat, lankide bat* dinamika jarri genuen martxan. Nahi zutenek parte hartu nahi zuten hemen eta egitekoa simplea zen: hilabete bakoitzeko pertsona bat aukeratzea, baina hari aukeratua izan zela esan gabe, eta hilabete oso batez saiatzea lagun horri euskara hutsean egiten. Hizkuntza-ohiturak aldatzeko praktika bat izan zen eta aitortu beharra daukat hemen ez genuela arrakasta handirik izan, batez ere

*"Ikusi dugu euskara planak ematen duela zeharka beste gauza batzuk lantzeko aukera, euskarak berak lantegian duen onspenagatik; alegia, aliatu garrantzitsua izan daitekeela enpresaren erronkak garatzeko"*

partaidetza aldetik. Batetik hori, eta bestetik, berretsi genuen ez dela guk uste bezain erraza hizkuntza ohiturak aldatzea ere. Bi dinamikak martxan ditugu, eta aldiro neurtzen ditugu emaitzak, zertan hobetu ikusteko.

#### **Zer ondorio atera zenuten guzti honetatik?**

**Ion Z.:** Euskara planak ematen zuela zeharka beste gauza batzuk lantzeko aukera, euskarak berak lantegian zuen onspenagatik. Alegia, aliatu garrantzitsua izan zitekeela enpresaren erronkak garatzeko. Izan ere, jendearen parte-hartzea eta inplikazioa lortzea errazagoa da euskara moduko gai batekin, berdintasuna moduko gai batekin baino, adibidez. Euskararen planak ibilbide luzeagoa egin du Danobaten Berdintasun planak baino eta hori bera lagungarri zitzaigun. Langileen parte-hartzea handitu nahi genuen eta interbentzio honek balio izan du horretarako; erantzukizuna eta boterea pertsona gehiagoren artean hedatu direlako eta horrek lagundu duelako lekuan lekuko helburu errealkak proposatzeko orduan ere.

**Badakigu Danobat aitzindari izan dela inguruotan lan mundua euskalduntzeko ahaleginean eta ezaguna dugu inguru gertuan euskalgintzako zenbat proiektu lagundu dituen ere, baina oraindik ere kostatzen zaio euskarari dagokion lekua irabaztea enpresa munduan. Zerk lotzen gaitu?**

**Saioa Amuriza:** Ikerketa lantaldean diagnostikoa aurkeztu zutenean entzun nituen gauza batzuekin ni neu harrিতuta gelditu nintzen, egia aitortu behar badut. Harrিতuta, onerako, jakina. Ederra da, adibidez, entzutea, zenbat estimatzen duten nazioartean Danobaten euskara baloratzea. Izugarria iruditzen zitzaidan Alemaniako bezero batek esatea hizkuntzan, berdintasunean eta



bestelako gai sozialetan denbora inbertitzeko gai den enpresa sendoagoa eta errotuagoa dela. Gehiagotan entzuten da bestea: 'Hemen ez dugu esango euskara sustatzen dugunik, horrek eragin negatiboa izan dezakeelako bezeroak lortzeko orduan'. Baina atzerriko bezeroek beste irakurketa hori egiten dutela entzutea pozgarria da.

**Langileen arteko kohesioa eta enpresarekiko atxikimendua lortzeko ere balio izan du ikerketak. Kooperatibetan bada aspaldiko kezka hori, izaera kooperatibista nahi baino apalduagoa ote dagoen.**

**Saioa A.:** Talentua da hemen egunero entzuten dugun hitza, eta bada kezka zabaldu bat gizartearen euskara planek edo langileei gutxieneko euskara maila eskatzeak uxatu dezakeela talentu hori, baina ez, kontrakoa ondorioztatu dugu guk. Talentua hemen ere badago. Gure gazteen gehiengo handi batek euskaraz egin ditu hemen ikasketak; talentu handidunen multzo handia dugu hemen bertan, eta kanpoan bila ditzakegun banaka horiek erakartzea baino garrantzitsuagoa da hemen bertan dugun talentu guzti horri eustea, horiei lan egiteko aukera emanda. Harrera planean zehaztuta dago euskara planaren aurkezpena egitea langile berri guztiei eta denek aipatzen dute gauza bera: 'Zer ederra den hemen euskaraz egitea arau soziala izatea, ni euskaraz bizi naizelako'. Eta hori ez da berez sortu den zerbait, jakina. Hori euskara planak ekarri du Danobatera.

**Ion Z.:** Lortu da modu natural batean funtzionatzea euskaraz, eta ezin denean bakarren batek ez dakielako, elkarriketak elebidunak izatea.

**Saioa A.:** Kontseilu errektorean eta zuzendaritza batzordean denak dira euskaldunak.

Danobatgroupeko zuzendari nagusi berria, oraindik ez da gai hitz egiteko euskaraz, ulertu egiten duen arren, baina hala ere, haien arteko batzarrak euskaraz izaten dira. Hori praktika naturala da gaur egun. Danobaten 450 langile daude eta badago euskara batzorde bat zortzi laguneko, badago hogeit bat laguneko eragile sare bat, eta sistematizatuta dago hilean egiten diren 50 bat bileratan zer hizkuntza erabiltzen den neurtzea ere. Eta horrez gain, saiatzen gara euskararen alde egiten dugun guztiaz informatuta izaten langileak eta bestelako ekintza ludikoak eta motibatzaileak sortzen ere.

**Ion Z.:** Baina kolektibo handia da hau, ez dugu denok elkar ezagutzen eta askotan zaila izaten zaigu denengana iristea. Eta, jakina, parte-hartzea ez da guk nahi bestekoa izaten. Baina praktika honek erakutsi digu lekuan lekurako euskara plan zehatzak definitzea eta martxan jartzea lagungarria dela parte-hartzea handitzeko, hobeto ezagutzen delako errealtatea eta helburuak ere errealoak izaten direlako. Erantzuna ona da hemen, ez guk nahi bezain ona beharbada, baina ona, eta garbi dago da, bereziki zuzenean eskatuz gero, jendeak oso jarrera ona agertzen duela. Etorkizunari begira motibazioan gehiago eragiteko bideak aztertzeak premia ikusi dugu.

**Etorkizunari begira, zer?**

**Ion Z.:** Parte-hartzearen aldagaiarekin esperimentatzen ibili garenez, euskara planeko helburu eta dinamiketan parte-hartzeko modu desberdinak probatzen jarraitu behar dugula iruditzen zaigu. Noizean behin ohiko dinamiketarik irten eta ausartagoak izan behar dugu, euskara planak horretarako aukera ematen baitu.



## ELGOIBARREK BRUNAREKIN OSPATUKO DITU EGUBERRIAK

Ate joka dauzkagu Eguberriak, istorioak eta kontakizunak mahai baten bueltan partekatzeko momentuak. Giro horretan, Brunaren abenturak sortu ditu Elgoibarko Udalak, merkatariekin elkarlanean. Elgoibarren pasatuko ditu Eguberriak Brunak, eta herritar bat gehiago izango da. Ez dakizuela nor den? Seguru honezkero ikusi duzuela herriko erakuslehoetan. Ile gorri nahasia eta aurpegi alaia dituen neskatila da, eta abenturaz beteriko Eguberriak eskainiko dizkigu.

Elgoibarko Udalak Eguberrietarako kanpaina berezia prestatu du herriko merkatariekin elkarlanean, eta Bruna izango du protagonista. Hamasei kapitulutan jaso du Brunaren istorioa Jasone Osoro idazleak, eta Judit Piella ilustratzaile kataluniarrak sortu ditu irudiak. Brunaren istorioa Elgoibarren bertan dago girotuta, eta beraz, gure udalerriko txoko ugari agertuko dira ipuinean. Santa Ana kaleko Idama ile-apaindegian jarri dute Bruna bera, baina ipuina bera Aaurin hasiko da. Agurtzane ile-apaindegian jarri dute kapituluaren mapa, izan ere, ipuina kontatzeko herriko hamasei erakusleho erabiliko ditu Brunak. Horretarako, interaktibo bihurtu dituzte gure herriko dendarien erakuslehoak, eta haietako bakoitzean jarri duten QR baten bidez emango dute ezagutzera bere abenturak. Magikoa izango

da dena. Eskua erakuslehoiko QR gainera pasa eta ipuinean barneratuko garelako. Eskarapatea piztu egiten da, mugimenduan jartzen dira pertsonaiak eta eskuko telefonoan hasten da abentura. Izan nahi al duzu haren ibileren berri? Ez galdu ba aukera! Hurbildu zaitetz erakuslehoetara, hantxe dituzulako zain Bruna eta bere lagunak.

Egitasmoa Udalarena da, baina lantalde artistiko batek sortu du proiektua. Jasone Osoro idazle elgoibartarrak sortu du ipuina, Judit Piellak egin dituz ilustrazioak, Garazi Ayesta kazetariak narratzaile lanak egin ditu eta Gaztelekuko gazteek ahotsa jarri diete pertsonaiei. Hori guztia erakuslehoetara eramatearen arduraduna, berriz, Mario Echevarria izan da. Orriotan batu ditugu protagonista guztien iritziak.



## **AINHOA URIGUEN** Karkizano dendakoa eta Txankakua merkatari elkarteko presidentea

"Brunaren proiektua oso polita da, eta pentsatzen dut merkatari txikiok asko lagunduko digula. Martxan jarri zutenetik pasatu dira egun batzuk eta igarri dugu mugimendua kalean zehar. Ume asko dabilta eskaparateei begira ibilbidea egiten, kapitulo bila... Helduak ere gerturatzeko dira, kuriositatea daukate, argiak pizten dituzte eta asko ikusten dira QR kodearekin ipuina entzuten. Herritarren atentzioa behintzat deitu du kanpainak, eta guretzako horrelako gauzak beti izaten dira interesgarriak. Oraingoan iruditzen zait, gainera, Elgoibartik kanpora ere izan dezakeela interesa kontu honek. Kanpaina berria da, momentuz ez da horrelakorik ikusi inguruko herrietan eta agian erakarri dezake kanpoko jendea ere.

Orijinala da, berritzailea eta Eguberritarako oso aproposa. Jendea erakartzen du erakusleioetara eta hori beti da positiboa. Ez du esan nahi erakusleioetara hurbiltzen diren guztiak dendara sartu eta zerbait erosiko dutenik, baina horietakoren batzuk sartzen badira eta erosketaren bat egiten badute, guretzako ona izango da. Egia esanda, merkatari txikiontzako dena da beharrezkoa. Gu ere saiatzeko gara tarteka kanpaina bereziak antolatzen eta herrigunetik aparte dauden establezimenduetan zerbait egitea asko kostatzen zaigu. Brunaren kanpaina honekin sartu dituzte proiektuan horiek ere, eta eskaparate horiek ikusi nahi dituztenek bertara joan beharko dute. Ipuina herrian girotuta dago, herriko lekuetan gertatzen dira gauzak... Umeek gurasoekin egin dezakete ibilbidea, eta elkarrekin ipuin polit bat entzuteko aukera dute. Merkatariok, oro har, ondo hartu dugu kanpaina hau eta eskertzekoa da. Positibotzat jo dugu".

## **MARIO ECHEVARRIA** Erakusleiohen egilea



"Erakusleio magikoak izeneko proiektu baten parte gara, eta gure ardura izan da ipuineko leku eta pertsonaiei bizia ematea. Eskerrik asko Elgoibarko Udalariko proiektu honetarako nire lantaldea aukeratzeagatik, eta guran konfiantza osoa jarri izanagatik. Kanpaina hau berezia izan da guretzat. Ipuin bat Elgoibarrerako propio idatzi du herriko idazle batek eta istorio honetarako soilik pentsatutako ilustrazioekin apaindu dute. Gainera, Elgoibarko gazteek euren ahotza jarri dute ipuinean, eta horrek benetako ukitua ematen dio guztiari. Horrelako proiektu batean parte hartzen genuen estreinako aldia izan da. Orain arte beti ipuin ezagunak hartu izan ditugu, Tom Sawyerren abenturak esaterako, eta irudi horiek eraman ditugu erakusleioetara, baina espreski herri baterako sortua izan den pertsonaia

bati bizia ematea berezia izan da, magikoa. Dimensio bakarrean sortutako pertsonaia hiru dimentsiotan jarri ditugu guk, eta erakusleioan eskua pasatuta jartzen dira martxan. Irakurri eta entzun egin daiteke ipuina, herriko gazteen ahotsean. Liluragarria da.

Herritarren erantzuna oso positiboa izan da, eta ilusioa nabarmena izan da kalean erakusleioak muntatzen hasi ginetetik amaierara arte. Merkatariak ere eskerrak eman behar dizkiet, oso ondo hartu gaituztelako eta gure lana erraztu dutelako. Erakusleioak okupatu dizkiegu beraiantzako oso garrantzitsua den sasoi batean. Eguberriak oso inportanteak dira eurentzat eta beraien produktuak erakusteko lekua kendu diegu, baina hala ere, ilusioz hartu dute Bruna euren establezimenduetan eta proiektua babestu dute".





## JASONE OSORO Idazlea

"1971ko abuztuaren 12an jaio nintzen Elgoibarren. Informazio zientziak eta Gidoigintza gradu ostekoa ikasi nituen, eta prentsa idatzian, irradian nahiz telebistan egin izan dut lan, kazetari, zuzendari, gidoilari, kolaboratzaile eta aurkezle bezala. Narratibako liburuak idatzi izan ditut gehienbat, bai helduentzat (*Tentazioak*, *Korapiloak*, *Greta* eta *12etan bermuta* eta *Arrakasta* saiakera); bai gaztetxoentzat (*Jara*, *Ezekiel*, *Eskularru beltzak* eta *Goazen* bildumak eta *Festa*). Nire ibilbidean hainbat sari eskuratu ditut: Zazpikale, Zilarrezko Euskadi, Igartza, Agustin Zubikarai, Juul, Ezekiel Etxeberría, Geure Gelatik... Euskal Idazleen Elkarteko lehendakaria izan nintzen. Gaur egun idazle profesionala naiz.

Brunaren ipuina idatzi berri dut, erditu dudan azken alaba izan da Bruna, eta nik izugarri maite dut. Proiektu hau talde lanaren emaitza izan da, eta

oso pozik eta harro nago talde horretako kide izan naizelako. Eskerrak eman nahi dizkiot Udalari, eta bereziki, Miriami (Montero), proiektu honetan parte hartzeko aukera eman izanagatik. Bruna haurren ausardia, alaitasuna eta irudimena islatzen dituen pertsonaia da. Bere historiaren bidez, besteen iritziek gugan nola eragin dezaketen adierazi nahi du: txarrerako, zalantzak eta sortuz; eta onerako beldurrak gainditzeko eta gugan konfiantza izaten lagunduz. Bi ezaugarri nagusi ditu: batetik, izena, izana ematen diona, eta bestetik, bere ile gorri nahasi hori. Bruna izen sendoa da, ziurtasuna ematen dio, ekintzailea da, agintzea gustatzen zaio... liderra da eta oso maitagarria. Ileana nabarmendu nahi dut, ameslaria delako, eta sentitzen duen guztia bere ilean ikusiko delako, azkenean pentsatzen eta sinisten duguna garelako. Ipuinean gauza asko islatu nahi izan ditut: adiskidetasuna, merkataritza txikia, belaunaldien arteko harremana... eta Elgoibar. Fikzioaren bitartez josi dut dena, modu entretenigarrian".



## JUDIT PIELLA Ilustratzailea

"Bartzelona inguruko herri txiki batean bizi naiz, eta ilustratzailea eta ingurumen arloko aditua naiz. Txikitatik, noan lekura noala, kaiera eta lapitza eramaten ditut beti aldean. Oso gogoko dut mendietan eta basoetan barrena ibiltzea eta inspiratzen nauen guztia marraztea. Ingurumen Ikasketen Gradua ikasi nuen Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan. Haur eta gazteen argitalpenentzako Graduondokoa egin nuen EINAn (Bartzelonako Diseinu eta Arte Unibertsitate-Zentroa), eta natura zientzietako ilustrazio zientifikoaren masterra ere bai, Gironako Unibertsitatean.

Orain Brunaren ipuina ilustratu dut. Brunaren historian lan egitea erronka eta,aldi berean, esperientzia zoragarria izan da niretzat. Elgoibar ezagutzen ez nuen lekua da, baina Jasone Osoro eta Miriam Montero Ekonomia Sustatzeko Saileko teknikariaren argazkiei eta gidari lanari esker, nire

buruan birsortu ahal izan nuen Elgoibar. Azkenean, herria bisitatu nuenean, betidanik ezagutzen leku batera iristea bezalako izan zen, dena egiten zitzaidan ezaguna. San Frantzisko kalean nindoala edifizio bateko fatxada bat beste kolore batez margotuta zegoela konturatu nintzen, eta Jasone eta Miriam oraindik konturatu gabe zeuden. Bitxikeria polita izan zen. Brunaren pertsonaiak eta mundua sortzea oso prozesu naturala izan da, eta hunkituta nago nire ilustrazioak 3D bihurtu direla ikusteaz. Nire ibilbide profesionalean esperientzia paregabea izan da hau guztia. Elgoibarrek inspirazio handia eman dit eta benetako plazera izan da proiektu honetan lan egitea. Bruna izena ohikoa da Katalunian eta nire lagunik onenetarikoak ere izen hori dauka. Hasieratik izan nuen feeling ona Brunarekin, eta prozesu guztia oso magikoa izan da. Nire irudiak erakuslehoetan ikustea emozionatua izan da. Oso eskertuta nago parte hartzeko aukera eman izanagatik".



## GAZTELEKUA

"Aurreko ikasturtean, 2010ean jaiotako 36 neraberekin parte-hartzean oinarritutako prozesu hezitzaile bat jarri genuen martxan Gaztelekuan, beraien udako egonaldia antolatu eta finantzatzeko.

Urtarrilean hasi eta uztailean bitartean hezitzaileekin bildu ginen hilabetero eta gaztelekutik proposatu eta haien borondatez hainbat ekintza egin genituen. Bide honetan zehar ardurak hartu behar izan zituzten gazteek, finantzaketa modu ezberdinak baloratu eta martxan jarri, ondoren irabaziak eta galerak kudeatzeko. Ekintza horietako batzuk aipatzearren, txapelketa eta jolas ezberdinak antolatu zituzten beste nerabe batzuentzat eta Ludotekako haurrentzat gogoki denda bat jarri zuten martxan gaztelekuko lokalean. Herrira begira, errifak saltzeaz eta zozketak egiteaz gain, bigarren eskuko azoka bat ere antolatu zuten. Urtarrilean Udalak Gabonen bueltan tokiko merkataritza sustatzeko abiatutako ekimen honen berri

eman zigun, eta parte hartzeko aukera eskaini ziguten, gainera. Oso polita iruditu zitzaigun eta taldeko sei kidek hartu dute parte Ara, Alai, Aia, Telmo, Andresa, Bruna eta bere aitari ahotsa jarriz. Esperientzia honen bidez, nerabeek autonomia pertsonalean, talde-lanean eta kudeaketa ekonomikoan dituzten trebetasunak hobetu dituzte, eta, gainera, loturak eta erantzukizun partekatua indartu dituzte. Brunaren proiektuan parte hartzeko aukera eskaini zitzaizenean, pozik hartu zuten erronka eta urduritasun eta lotsak gaudituz, bi egun pasatu zituzten grabaketa estudioan lanean. Pozik daude emaitzarekin eta gogotsu aurrerantzean ere horrelako proiektuetan parte hartzen jarraitzeko. Hezitzaile bezala oso harro gaude gure gazteez".



## GARAZI AYESTA Ipuineko narratzailea

"Junkal eta Carlosen alaba naiz. 30 urte ditut, eta Elgoibarren bizi naiz. Umetan kazetaritza eta komunikazioarekiko interesa piztu zitzaidan, eta Ikus-entzunezko Komunikazio Gradua ikasi nuen Mondragon Unibertsitatean. Han, klaseak nire lehen lanarekin uztartu nituen, eta MUTBn, unibertsitateko telebistan, kazetari eta aurkezle moduan egin nuen lan, bekadun. Gradua amaitu aurretik, Goiena Telebistan eta EITBko albistegietan ere egin nituen praktikak. 2015az geroztik, EITBn nago lanean. Telebistako kazetaritzaren mundua ezegonkorra izan daitekeela jakinda, Komunikazio korporatiboko eta Krisi komunikazioko Masterra ikasi nuen, hedabideetatik enpresetarako atea zabalik egon zedin, baina egun, oraindik, ez dut eskuko mikrofonoa askatu. Urte hauetan, enpresa, erakunde eta instituzioen ekitaldiak ere aurkeztu izan ditut tarteka, eta, orain, Brunaren ipuinaren narratzaile bihurtu naiz proiektu

honetan. Brunaren proiektuan narratzaile lanak egitea esperientzia berria eta oso dibertigarria izan da niretzat. Ahotsarekin lana egitera ohituta nago, baina normalean albisteak ematen ditut eta hor tonua oso zaindua izaten da. Beraz, oraingoan umeentzako ipuin baten kontaketa egitea jolas polita izan da. Gainera, Jasonek eta Juditek (talentuz jositako bi emakume) proiektu honetan nirekin kontatu izana plazer hutsa izan da. Eskerrik asko Gaztelekuko begirale eta gazteei ere; Udalarri eta herriko komertzioei, euren eskapareak okupatuko ditugulako tarte batean. Espero dut guk grabaketetan bezain ondo pasatuko duzuela zuek ere kalean gora eta behera, Brunaren istorioak entzuten".



# EGURALDI TXARRARI, AURPEGI ONA

✍️ Ainara Argoitia

Zaparrada mardulak eta aterrune motzak egin zituen zapatuan, eta ez da hori jai egun baterako lagun ona izaten, baina hala ere, gozatu zuten Mendaron Kontzezio azoka eguna. Egunak ohiko osagaiak izan zituen: Mendaroko Gazteak taldekoen dantza emanaldia, kaleko musika, sagardo lehiaketa, kuadrilla bazkariak, erromeria eta DJsaioak. Lehiaketen sailean, Urdaira sagardotegikoek irabazi zuten sagardo lehiaketa eta Ainara Epeldek eta Eneko Bolunburuk irabazi zituzten Udalak zozkatutako bi sariak: [barren.eus](http://barren.eus)







## ■ 3.616.758 EUROKO AURREKONTUA ONARTU DU MENDAROKO UDALBATZAK 2025ERAKO, AHO BATEZ

✍️ Ainara Argoitia    🗣️ Ion Urbieta

**Aho batez onartu zuten Mendaroko udalbatzaren azaroko osoko bilkuran 2025. urterako aurrekontua. Hala, 3.616,757,77 euroko aurrekontua izango du Mendaroko Udalak datorren urtean, iazkoa baino %12 handiagoa. Ohiko moduan, Foru Aldundiaren Udalak Finantzatzeko Foru Funtsa izango da Mendaroko Udalaren diru iturri nagusia 2025ean ere. Izan ere, sarrereren erdia inguru izango da Udalak bide horretatik jasoko duena: 1.801.370, iazko ekitaldian baino 70.000 euro gehiago. Gastuen atalean, 353.500 euro dira inbertsio errealetarako aurreikusituen dituztenak.**

**A**urtengorako onartu zutena baino %12 aurrekontu handiagoa izango du datorren urtean Mendaroko Udalak. Sarrereren atalean, nabarmentzekoa da Foru Aldunditik udalek urtero udal partaidetzaren kontzeptupean jasotzen duten kopurua 70.000 euroan handitu dela. Gastuen atalean, berriz, bi kontu dira bereziki azpimarragarriak. Inbertsioetarako aurreikusitako kopurua, 353.500 euroko partida, eta gizartegintzarako partidak izan duen %16ko igoera, 2025erako 49.450 euro gorde baitituzte gizartegintzarako. Hein handi batean, etxez-etxeko laguntza zerbitzuak izandako eskari kopuruaren gorakadari zor zaio igoera hori. Urtero-urtero hazten ari da eskaera eta diru-partidan isla zuzena dauka horrek. 2024an 140.000 euroko partida izan du Udalak, eta 2025ean 239.000 eurokoa izango du, %71 handiagoa beraz. "Mendaroko Udalak

oso argi dauka Mendaroko herritarrentzat oinarri-oinarritzko zerbitzu bat dela, eta hartu beharreko neurriak hartu nahi ditu, gero eta zaharragoa den gure gizartean premian dagoen jendea duintasunez zaindua izan dadin", zabaldu dute Udaletik, prentsa ohar bidez. Gizarte babesari lotuta, 60.000 euroko partida onartu dute Gizarte Larrialdietarako Laguntzarako, 2024a baino %33 handiagoa.

Inbertsio errealei dagokienean, zatirik handiena jubilatuen taberna eta egoitzaren erreformarako partidak hartzen du. 150.000 euro gorde dituzte horretarako, proiektua idatzita dagoenean lanei ekiteko, nahiz onartu duten derrigorra izango dela datorren urteko aurrekontuetan beste diru kopuru bat gordetzea lanak amaitzeko. Bestalde, 50.000 euroko partida bat gorde dute lokalak erosi ahal izateko. Anbulatorioa lekuz aldatu eta gaur hark

okupatzen duen espazioa kirolgunea handitzeko erabili nahi dute, eta Osakidetzarekin ordezkoko leku bat adostu nahian ari dira orain, "lekualdatze hutsa izan beharrean Mendaroko Osasun zerbitzuak hobetzeko aprobetxatu ahal izateko aldaketa". Osakidetzaren erabakia aste gutxiren buruan jasotzea espero dute Udalean, eta testuinguru horri erantzuten dio lokalen erosketarako izendatu duten 50.000 euroko partidak.

## ETXEBIZITZA PLANAREN TXOSTENA

Otsailean bildu ziren Enez Ezenarro Mendaroko alkatea eta teknikariak Gasteizen Jaurlaritzako Etxebizitza Saileko arduradun eta teknikariekin, Jaurlaritzak dituen programa desberdinen inguruan informatzeko eta Mendaron egin ahalko liratekeen aktuzioen inguruan iritziak partekatzeko. Bilera hartan bi kontu adostu zituzten: Udalak proposatutako aktuzio konkretuen bideragarritasuna aztertuko zuela Jaurlaritzak, eta bestetik, Udalak Etxebizitza Plan

Beste bi partida handi ere badira inbertsioetan: bata, 40.000 eurokoa, plaza auzoan, Intxusai erreka magalean, lursail bat erosteko, hemen bertoko basoa berreskuratzeko. Eta bestea, 110.000 eurokoa Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailarekin hasitako elkarlanaren baitan etxebizitza eraikin zahar bat erosi eta babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko.

bat idazteko. Udalak IKEI enpresari eskatu zion martxoan txosten hori idaztea, eta joan zen astean aurkeztu zuten jendaurrean, udaletxean; bai txostena bera eta baita Mendaroko etxebizitzaren problematikaren inguruko diagnostiko horretan detektatutako gabezia nagusiei "epe laburrean" erantzuteko aukera ezberdinak. Honako hauek dira herritarrei telefonoz eta sare sozialen bidez egindako inkestatik atera dituzten ondorio nagusiak:

1. 2024ko uztailean, 70 lagun ziren Etxebiden babestutako etxebizitza eskatua zutenak Mendaron: 50 herrian bertan erroldatutako pertsonen eskariak ziren eta gainerakoak erroldatu gabekoenak. Erroldatutako batez besteko diru-sarrera 14.651 eurokoa zen eta erroldatu gabekoena 12.991. Eskatzaile horietatik gehienek alokairuaren alde egiten dute: erroldatuen artean, 50etik 45ek, eta erroldatu gabeen artean, 20tik 13k.
2. Mendaroko familien %7,9k emantzipatzeko beharra dute datozen 3-4 urteetan, eta diru sarrera-propioak dituzte. Horietatik %44k bakarrik bizitzera joateko utzi nahi lukete familia-etxea, eta %38k bikotekidearekin joateko. Emantzipatzeko besteko diru-sarrerarik ez dutela aitortu dutenak gehituz gero, baina, epe labur/ertainean beste 55 lagun gehiago leudeke premia horrekin. Hori bai, emantzipatzeko beharra duten pertsonen heren batek adierazi du ezingo lukeela hilean 300 euro baino gehiago erabili, eta beste heren batek dio 300 eta 600 euro artean dituela erabiltzeko.
3. 63 familiak etxebizitzaz aldatu nahiko

- lukete (%8), eta premia hori agertu dutenen %39k alokatutako edo lagatako etxea laga eta jabetzan hartu nahiko lukete. Balkoia edo terraza nahi izatea edo etxebizitzaren beraren arazoak (hezetasunak, adibidez) dira etxez aldatu nahi izateko bigarren arrazoi nagusia. Gehienek, baina, Mendaron bizitzen jarraitu nahi lukete. Aldaketa-premiaren indize handienak Mendarozabal eta Garagartza auzoetakoek dituzte. Etorkizunean Mendaron bizitzeko nahiri buruz galdetu zaienean, alde nabarmena dago adinaren arabera, baina ikusten da gazteek gainerakoek baino proportzio txikiagoan geratu nahi dutela Mendaron.
4. Etorkizuneko etxebizitzaren edukitze-erregimenaz galdetuta, inkestatuen %62k jabetzan hartu nahi lukete etxea.
5. Inkesta erantzun duten hamar familietatik hiruk (%32,5) adierazi dute (erabilera nagusiko 245 etxebizitza) birgaitze-premiak dituztela beren etxeek. Auzoka, Azpilgoetan dago birgaitzeko premia handiena.
6. Mendaro bizitzeko leku erakargarritzat jotzen dute gehienek. Ondo komunikatuta egotea,

ingurumen-balore onak izatea, auzo batetik bestera joateko erraztasuna, Udalak emandako arreta eta zerbitzuak, osasun zerbitzuak eta kultura-ekipamenduak dira ondoen baloratutakoak. Puntu gutxien lortu dituzten alderdien artean daude: etxebizitza eskuratzea, uholdeen prebentzioa, merkataritza eta ostalaritza eskaintza eta bisitariak eta jarduera ekonomikoak erakartzeko gaitasuna.

7. Abuztuko datuak aintzat hartuz, Mendaron 29 etxebizitza zeuden hutsik eta zazpi txalet.

Datu guzti horiek aztertuta hiru ondorio nagusi atera dituzte: etxeak birgaitzeko eskaera handia dagoela, azpimarragarriak direla etxebizitza aldatzeko beharrak, batez ere alokairuko etxebizitzak edo lagatakoak okupatzen dituzten familien artean, eta lehenengo etxebizitza eskuratzeko eskaera handia dagoela gazteen artean, baina aldi berean errotze-maila txikiena eurek dutela eta, beraz, biztanleria galtzeko eta zahartzeko arriskua saihestu eta gazteei herrian eutsi nahi bazaie, beharrezkoa dela etxebizitza eskuragarrien eskaintzea handitzea, Mendaron emantzipatzea bideragarria izan dakien.

Alderdi horiek guztiak aintzat hartuta, eta fokua epe laburrean edo ertainean egin daitezkeenetan jarrita, lau lan-ildo proposatu dizkio IKEIk Udalari, bereziki baliabide gutxien duten kolektiboen beharrak estaltzeko:

■ **Laguntza publikoen berri ematea eta tramiteetan laguntzea**, "herritarrak askotan ezjakin izaten direlako erakundeek etxebizitzak alokairuan hartzeko eta berritzeko banatzen dituzten dirulaguntzena eta, jakinaren gainean egonda ere, sarri galduta sentitzen direlako tramiteetan". Horretarako, Udalaren webgunean etxebizitzari buruzko atal espezifikoa bat konfiguratu asmo dutela zehaztu du alkateak, laguntza guzti horiei buruzko informazioa zabaltzeko. "Modu horretan etxebizitza parkea handitzea litzateke asmoa, gaur egun hutsik daudenak okupatuta". Gaur egun, Mendaron 937 etxebizitza daude eta horietatik 149 daude hutsak (%16). "Zifra horretan sartuta daude inor erroldatzeko moduan ez dauden etxeak, baserriak eta denak".

Bloke bateko etxebizitzaren batez besteko prezioa 157.011 eurokoa zen, eta txaleten kasuan, 464.286 eurokoa.

8. Eraikinen Ikuskapen Teknikoa eginda izan beharko luketen etxebizitzari erreparaturaz gero, 1.000 eta 3.000 biztanle arteko tartean dauden udalerrien antzekoa da Mendaroko portzentajea. Guztira 66 eraikin dira 50 urtetik gora izan arren txosten hori eskuratu ez dutenak, eta horietako hamasei eraikinetan ez dira konpondu presaz konpondu beharko lituzketen hainbat patologia.

■ **Zuzkidura-bizitokiak sustatzea, emantzipatzeko urgentzia dutenentzat**. Kasu honetan ez dago bizitoki horiek Hiri Antolamendurako Planean etxebizitzak egiteko aurreikusitako lurretan eraiki beharrik. Etxebizitza hauek alokairuan ematen dituzte, gehienez bost urterako. Normalean etxebizitza txikiak izaten dira, pertsona bakarrarentzakoak edo birentzakoak, "merkeak eta gero saldu ezin direnak". Hileko alokairu-kuota bizitza-unitatearen diru-sarreraren %30ekoa izaten da gehienez, logela bat edo bi izatearen eta diru-sarreraren zenbatekoaren arabera (logela bakarreko etxeak hilean 150-350 euro eta bi logelatakoak 180-240 euro bueltan).

■ **Alokairu sozialerako birgaitutako etxebizitzaren udal-parkea handitzea**.

■ **Alokairuko babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzea sustatzea**.

Lau puntu horietan aurreratuena dagoena azkena da, Enetz Ezenarro alkatearen esanetan, Mendaron babes ofizialeko etxeak sortzea, Jaurlaritzarekin akordio batera iritsita. Plana honakoa da: Udalak eraikin zahar bat edo lur bat erosi, Hiri Antolamendurako Planean aldaketa puntualak egin beharrezko bada, eta Jaurlaritzaren diruarekin han etxebizitzak sortzea, baina horretarako eraikin horrek gutxienezko baldintza batzuk bete behar ditu, "aktuzio txikietan ez delako sartzen Jaurlaritza". Horretarako gorde du, hain justu ere, datorren urteko aurrekontuetan 110.000 euroko partida Udalak. "Begiz jota dauzkagu eraikin pare bat eta Jaurlaritzak argi-berdea eman zain gaude" ■

## Uxue Alberdik eta Miren Amurizak euren azken lanak aurkeztuko dituzte martitzenean Pitxintxun



**D**urangoko Azokaren programazioaren barruan, aurtengo nobedadeak aurkeztuko dituzte hainbat herritako liburu-dendetan, *Zu non, han da* izenburupean. Elgoibarko Pitxintxu liburu-dendan izango da horietako aurkezpen bat: Datorren martitzenean, abenduaren 17an, Uxue Alberdi eta Miren Amuriza izango dira, beraien azken lanak aurkezten. *Hetero* liburuaz mintzatuko da Alberdi, eta *Playback* aurkeztuko du Amurizak. 19:00etan izango da.

## Abenduaren 21ean zabalduko dute parrokiako jaiotza mekanikoa



Elgojaiotza taldeak jakinarazi du abenduaren 21ean zabalduko dutela jaiotza mekanikoa, eta urtarrilaren 19ra arte egongo dela bisitatzeko aukera. 1980an eman zioten bizia Parrokiako Jaiotzari, eta urtetik urtera landuagoa aurkezten dute jaiotza. 40 metro koadroko azalera dauka gaur egun jaiotzak, eta 70 figura baino gehiago mugitzen dira. Erreka txiki bat dauka, eta bi mila litro ur erabiltzen dituen ibaia. Ur jausi bat ere badago, arrain biziak errekan... Jaiotzak gau eta egun zikloak dauzka, detaile guztiekin. Gaez okina hasten da lanean, izarra jaisten da, behe lainoa ageri da, eta mila izar baino gehiagok egiten dute dir-dir zeruan. Egunez, bakoitza bere lanean ikusten da, eta animalien soinuak ere entzuten dira.

## Jaiotza lehiaketa egingo dute domekan

Elgoibarko Kabalgata Taldeak antolatuta jaiotza lehiaketa egingo dute domekan, abenduaren 15ean. Parte-hartzaileek 10:00etatik 12:00etara bitartean eraman beharko dituzte jaiotzak Aita Agirre kulturgunera. Lehiaketara aurkeztutako lan guztiekin erakusketa osatuko dute gero Aita Agirren, abenduaren 21etik 24ra eta 26tik 30era.

## Elgoibarko Udal Musika Bandak kontzertua emango du domekan, Herriko Antzokian

Domekan, abenduaren 15ean, kontzertua emango du Elgoibarko Udal Musika Bandak, Herriko Antzokian, 12:30ean. Gorka Mujikak zuzenduko du emanaldia eta hau izango da egitaraua: *La Primitiva*, *1.812*, *Christmas on*

*Broadway*, *Mesias sarritan* (Bakarlarria: Txomin Maidagan Ruiz.), *Haurtxoa Seaskan* (Bakarlarria: Nora Mujika Pikabea). Goizean, berriz, Elgoibarko dultzaineroak kalejiran irtengo dira, 10:00etatik aurrera.

## Amorantek kontzertua emango du gaur Elgoibarko Herriko Antzokian

**H**arri, Herri, Har diskoaren aurkezpen biraren amaierako kontzertua emango du gaur, barikua, hilak 13, Elgoibarren Iban Urizar *Amorantek*. Herriko Antzokian izango da kontzertua, 19:00etan, eta sarrerak salgai daude Herriko Antzokiaren webgunean (*herrikoantzokia.eus*), 10 euroan (Gazte txartelaren jabe direnkontzat eta 65 urtez gorakoentzat 3na eurotan).

Urizarrek aitortu du etxean jotzeak baduela erronkatik, baina ilusio handiz igoko dela Herriko Antzokiko oholtzara, bai eta urduritasun puntu batekin ere, etxekoen eta lagunuen aurrean jotzea beti delako berezia. Euskal Herrian eta estatuan zehar ibili da biran Amorante eta zorioneko



sentitzen da, kontzertu sorta handia eman duelako. Ziklo bat amaitzen duela ere zehaztu du, eta datorren urterako sormen-lan berriak izango direla aurreratu du. (👏 Jon Garate)

### Lau kontzertuko jazz zikloa antolatu dute Mendaron eta bihar izango da estreinako kontzertua, Mikel Urretagoiena bateria-jolearen M.U.T taldearena

Mikel Urretagoiena bateria-jole ordiziarrak irailean argitaratu zuen disko berria aurkeztuko du bihar, Mendaron: *Denbora*. Euskal jazzaren belaunaldi berriko artista handietako bat da Urretagoiena, Madrilén egonkortua, eta Dani Pozo baxu-jole eta Iñigo Ruiz de Gordejuela piano-jole mendarokarekin hirukoa osatua dator Mendarora, haiekin grabatu baitu bere bakarkako lehen lana dena. Kontzertuaren ondoren jazz session saioa egingo dute eta musikari guztiak gonbidatu dituzte. Mendaroko Uztargi tabernak eta Galle-tiak gozotegiak antolatu dute kontzertua, Gararock taldearen laguntzarekin, eta San Agustin kulturgunean izango da, 20:30ean. Sarrerak 15 euroan jarri dituzte salgai, Uztargi



tabernan eta bihar San Agustinen bertan. Ziklo beraren baitan beste hiru kontzertu iragarri dituzte otsailaren 14rako (Reinier Elizarde eta Marina Lledo), apirilaren 25erako (Juan de Diego) eta uztailaren 17rako (Haizea Martiartu).

### Salgai daude Elgoibarko Izarraren abenduko bertso jaialdirako sarrerak

Astelehenaz geroztik salgai daude Elgoibarko Izarrak Udalaren laguntzarekin abenduaren 26rako antolatu duen bertso jaialdirako sarrerak. Aurten ere, punta-puntako bost bertsolari arituko dira kantuan: Maialen Lujanbio, Julio Soto, Oihana Iguaran, Agin Laburu eta Xabat Ilarregi. Herriko Antzokian izango da saioa, 20:00etan hasita,

eta Imanol Artola *Felix* arituko da gai jartzaille. Sarrerak 13 euroan jarri dituzte salgai, baina Elgoibarko Izarrako bazkide direnei bi euroko deskontua egingo diete. Abenduaren 20ra arte Elgoibarko Izarraren bulegoan eskuratu behar dira sarrerak, eta epea amaituta sarrerarik geldituko balitz, egunean bertan salduko lituzkete.



## Paisajeak izango dira nagusi Gemma Monreal margolari elgoibartarraren azken erakusketan



**H**iru urte pasatu dira Gemma Monrealek Elgoibarren egin zuen azken erakusketatik, eta orain, "erakusketa desberdin" batekin dator, artistak berak adierazi duenez. Orain arte marraztu izan dituen etxe, kale, herrixka eta baserriak alde batera utzi, eta paisajeetan aurkitu du inspirazioa. Udaberria, udazkena, negua eta uda islatu ditu bere koadroetan, eta bereziki, natura izango da protagonista. Argazkietatik abiatuta sortzen ditu koadroak, baina irudi batzuk bere erara moldatzen ditu, gustuko ez dituen elementuak kenduz eta beharrezko jotzen dituenak gehituz.

Urederrako ingurunea margotu du koadro batean, Iratiko basoak, bere irudimenean sortu dituen beste hainbat baso... Beste fase batean sartuta dago orain, eta hala erakutsiko du bere koadroetan. 34 artelan jarriko ditu ikusgai, eta bik ez beste guztiek naturarekin dute zerikusia. Tamaina desberdinetakoak izango dira koadroak. Udaberriari lotutako koadro txiki batzuk egongo dira "oso kuriosoak", ertainak eta handiak ere bai eta sarreran 1,70x80 inguko koadro handi bat jarriko du ikusgai. Espatularen teknika erabili sortu ditu lan guztiak, baina koadro batzuetan erliebezko pasta bat erabili du bolumena emateko. Esperimentatzen ari da. Koloreekin ere jolastu du, eta aurreko lanekin alderatuta kolore

gehiago erabili ditu. Udazkena irudikatzen duten koadroetan berari hainbeste gustatzen zaizkion marroi eta urre koloreak nagusitzen dira, berde eta gorri tonu suabeekin. Udaberrian, aldiz, koloreak biziagoak dira, berde fuerteak, batez ere.

"Ilusio handiz" sortu du azken bilduma hau, eta herriari erakusteko irrikaz dago. Margo eskolak emateari laga bazion ere, Gemma Monrealek margotzen jarraitzen du. Azken bi urteotan ia egunero margotu du, azken urtean bereziki, eta bata bestearen atzetik sortu ditu koadroak. Estudiora joaten da margotzera, eta dio hango umeen barre algara artean etortzen zaiola inspirazioa. "Gutxi dira isiltasunean eta bakardadean margotutako koadroak, gehienetan alaitasuna nabari da". Bizitzeko margotzea behar du, eta margotzeak ematen dio bizia. Doan lekura doala, bere zirriborroen koaderno hartuta joaten da, inspirazioa edozein unetan etorri dakiokelako. Etengabe aritzen da apunteak hartzen, intereseko elementuak marrazten edota parean ikusten duenaren zirriborroa egiten. Ez du egun bat pasatzen marraztu gabe, "geldiezina" da eta azkenaldian inspirazioz beterik dabil.

Gaur arratsaldean zabalduko du erakusketa, 18:30ean, eta abenduaren 21era arte egungo dira ikusgai, Kultur Etxeko erakusketa gelan.

# Gasaren faktura aztergai

ETXEKO GASAREN FAKTURA ULERTZEKO JARRAIBIDEAK

Gasaren fakturaren oinarriko informazioa lege bidez araututa dago, baina ez du zehazten informazio hori zein formatutan eman behar den. Beraz, merkaturatzaile bakoitzak bere erara ematen du.

Gasaren faktura ulertzeko oinarriko bi kontzeptu daude: merkaturatzailea eta merkatu erregulatua. Kontratatuta duzun merkaturatzailearen arabera, jakingo duzu merkatu askean edota erregulatuan zauden.

## Merkatu erregulatua

Lau merkaturatzaile soilik dira merkatu erregulatuko tarifa (ABT-Azken Baliabideko Tarifa) eskaintzen dutenak: Gas&Power, Curenergia, Baser eta Energia XXI.

Merkatu erregulatuan prezioak arautuak daude eta merkaturatzaileak mugatuak ditu fakturatu ditzakeen gehieneko eta gutxieneko prezioak. Muga horiek Espainiako Gobernuak finkatzen ditu.

## Merkatu librea

Merkatu librean kontratuaren baldintzak kontsumitzailearen merkaturatzailearen artean adosten dira eta aldiari aldi, prezioak berrikusi egiten dira, kontratuan zehaztutako aldizkakotasunarekin. Gero eta gehiago, merkaturatzaileek kontratuaren baldintzak edozein unetan alda ditzaketela jasotzen dute kontratueta, eta,



ondorioz, komeni da arretaz jarraitzea gutun bidez, posta elektronikoz edo fakturan bertan bidaltzen dituzten komunikazioei.

Merkatuko baldintza normaletan, erregulatukoak baino merkeagoak diren tarifa libreak aurkitu ohi dira, nahiz eta beti dauden garestiagoak diren beste batzuk ere.

## Online konparatzailea

Jakin nahi duzu zenbat ordainduko zenukeen merkatu libreko konpainia batekin edo erregulatukoarekin? Sartu Espainiar Estatuko Merkatuen eta Lehiaren Batzorde

Nazionalak (CNMC) sortutako online konparatzailean, jakinarazi zein hornidura mota nahi duzun, posta kodea eta zure urteko kontsumo datuak eta berehala, zure profilari egokitutako gas edota elektrizitate eskaintza guztien berri emango dizu.



CNMC-ren online konparatzaileara lotura



energia.debegesa.eus  
agenda2030@debegesa.eus  
943 82 01 10.

**ONLINE  
KONPARATZAILEAK GAS  
EDOTA ELEKTRIZITATE  
ESKANTZA GUZTIEN  
BERRI EMATEN DU**

## Omango Sultanerrian jokatu duten Himan mendi lasterketa irabazi du Maite Maiorak


Pertsiaiko Golkoan dagoen Omango Sultanerriraino joan da Maite Maiora, mendi lasterketetan ibilbide teknikoetarikoa duen Himam izeneko lasterketan lehiatzera, eta garaipena eskuratuta, hango mendien ezaugarrietara ere ezin hobeto moldatzen dakiela erakutsi du mendarorarrak. Emakumezkoetan azkarrena izateaz gainera, sailkapen nagusiko seigarren denborarik onena egin zuen Maiorak, 17:40:15-ko denborarekin. Aziza Raji marokoarra sailkatu zen bigarren postuan (21:33:46), Maiorarengandik ia lau ordura. Gizonezkoetan Rachid El Morabity marokoarra izan zen azkarrena (15:54:04). Maiorak aitortu du zalantza ugarirekin iritsi zela Omanera, Himam Trail Run Race probaren luzearekin eta ibilbidearen ezaugarriekin kezkatuta. "110 kilometroko distantzia izateaz gainera, -5440 metroko desnibel positiboarekin-, munduko ibilbide teknikoena duen trail lasterketa dela esana zidan Omar El Sawy mendi lasterkariak, eta ez zioen gezurrik". Ibilbidea harri txintzarrez beteriko bideetatik igarotzen zela azaldu du mendarorarrak eta via



ferrata ugaritatik pasatu zirela, erorikoak garesti ordaintzen ziren bide malkartsuetatik. "Badaukat gaitasuna erorikorik ez izateko zentzumen guztiak adi ditudala korrika egitekoa, baina ez nekiena zen horrenbeste ordutan mantendu beharko nuenik kontzentrazioarako gaitasun hori". Burua lurretik altxatzeko aukera izan zuen tarte labur horietan, baina, inguruko paisaia ikusgarriaz gozatzeko aukera izan zuela dio, eta omandarren berotasuna gertutik nabaritu zuela.

---

### Mendian federatzeko epea ireki du Lizarpe Mendi Klubak



Lizarpe Mendi Klubak 2025ean mendian federatzeko epea zabalik dagoela jakinarazi du. Interesatuak [lizarpe.com](http://lizarpe.com) webgunean izango dute eskaera egiteko aukera. Federatuak atalean klik egin eta han eskegi duten fitxa bete beharko dute, abenduaren 18a baino lehen. Egun hortara arteko txartel guztiak aldi

berean tramitatuko dituzte, eta urtarrilaren 1ean aktibatuko dituzte. Informazio gehiago behar izanez gero, edo izen-ematea Internetez egiteko zailtasunak izanez gero, eurekin harremanetan jartzeko eskatu dute, 659 715 722 telefono zenbakira deituta edota [info@lizarpe.com](mailto:info@lizarpe.com) helbidera idatzita.

## Herriko Antzokian banatuko dituzte Kirol Federatuaren Urteko Sariak hilaren 18an



**M**usika Eskolan beharrean Herriko Antzokian egingo dute aurten Elgoibarko Kirol Federatuaren Urteko Sariak banatzeko ekitaldia, Carlos Soria alpinista ezagunak hitzaldia emango baitu. Eguaztenean, abenduaren 18an, izango da, 19:30ean. Sariok banatzen dituzten hamazazpigarren aldia izango da aurtengoa eta 23 sari banatuko dituzte: 18 kirol elkarteek banatuko dituzte eta beste bost sari Udal Kirol Patronatuak. Une honetan 19 kirol talde daude Elgoibarren eta federatutako 1.497 lagun dabilta horietan, edo

beste era batera esanda, elgoibartarren %13 kirol federatutan ari dira. Kirolaren inguruko solasaldi batekin jantziko dute sari banaketa ekitaldia, eta Carlos Soria alpinista (Avila, Espainia, 1939) ezaguna izango da aurtengo gonbidatua. 85 urte eduki arren, Himalaiako menditzar handiekin amesten segitzen du, eta hamalau zortzimilakoak osatzeko falta zaizkion bi mendiak igotzeko ahaleginean dihardu. Dhaulagiri eta Shisha Pangma dira zortzimilakoen zerrendan zapaltzeke dituen tontorrak.


### Gipuzkoa Kirolak saria jasotzeko hautagaietako bat da Leire Egaña



Aldundiak Gipuzkoa Kirola Sariak banatuko ditu abenduaren 20an, Irungo Ficoban egingo duten kirol galan. Gipuzkoarren Kirola Herritarren Saria jasotzeko hautagaietako bat da Leire Egaña Bastida ehiztari elgoibartarra, Espainiako oilagor ehizako txapelduna izategatik. Sari herrikoa da, herritarrek aukeratu beharko baitute euren botoen bidez nork merezi duen saria 57 hautagaien artean. Aldundiaren webgunean sartu behar da botoa emateko, eta abenduaren 15ean amaituko da epea.

### Urrezko Aizkolarien finalean izango da Uxue Ansorregi

Urrezko Aizkolarien Kopako kanporaketak jokatu zituzten abenduaren 6an Mallabian, eta emakumezkoen binakakoan Uxue Ansorregi mendaroarrak eta Karmele Gisasola *Zelai III.a* mallabiarrak osatutako bikoteak lortu zuen finalerako sailkatzea. Asteasun jokatu dute finala, abenduaren 31n. Finalera begira, zuhurtzia nabari da bi finalistek berbetan "Gauza bat da finalera heltzea eta beste bat irabaztea. Lan egin beharko dugu, baina badaukagu denbora pixka bat ere, beraz, saiatuko gara ahal dena egiten", esan dute.



## Andres Perez, txapeldun eta Markel Kerexeta, txapeldunorde Berkoa Xake Txapelketan

Hainbat herritako 25 xakelari aritu dira lehian Zubi Ondo taldeak antolatzen duen udazkeneko Berkoa Xake txapelketan, eta domekan jokatu zituzten azken errondako partida erabakigarriak, Mintxeta tabernan. Zazpi jardunaldi edo erronda jokatu ostean, Andres Perez azkoitiarrak batu ditu puntu gehien: 6 puntu; sei partida irabazi eta bakarra galduta. Markel Kerexeta izan da txapeldunorde, 5,5 punturekin (bost garaipen, berdinketa bat eta porrot bat). Anibal Fernandez azkoitiarra sailkatu da hirugarren postuan, 5 punturekin. Felix Manso urnietarrarentzat izan da laugarren postua eta Iñigo Solabarrieta lekeitiarrarentzat bosgarrenkoa. Xakean federatu gabekoen artean, Julen Agirre izan da lehen sailkatua.



Domekan, berriz, Tomas Conderen oroimenezko Createch Medical xake txapelketak jokatuko dituzte; goizean bata eta arratsaldean bestea, taldekakoa lehen eta banakakoa bigarrena, biak ala biak partida azkarren lehiak. Taldekakoa jokatu dute lehenik, 10:00etatik aurrera, Zubi Ondo xake taldearen egoitzan. Hamabi taldek eman dute izena. Banakako txapelketa 15:00etatik aurrera jokatu dute.

### Asteburuan hiru xake txapelketa

Xakearen hilabetea da abendua Elgoibarren, Zubi Ondo taldeak hiru txapelketa antolatu baititu astebururako. Hasteko, Eskola Kiroleko Xake Txapelketa jokatu dute zapatuan. Parte hartu nahi dutenek 10:30erako agertu beharko dute hara.

### Gipuzkoako Kros Txapelketan lehiatu dira Mintxetako atletak, Arraten

Gipuzkoako Kros federatu eta eskolarraren txapelketa jokatu zuten abenduaren 1ean Eibarren, eta Mintxeta Atletismo Taldeko ordezkari mordoxka aritu ziren antxitxika Arrateko Olabeo zelaietan. Mikel Agirrebeña elgoibartarrak gizonetzkoen senior mailako lasterketan lortu zuen laugarren postua nabarmendu behar da. Super Amara Bat taldean dihardu Agirrebeñak, baina Mintxeta taldeko koordinatzaile Lander Azpiazuk aurreratu duenez, Mintxetara itzultzeko asmoa du hurrengo denboraldian. Elgoibartarren emaitzak eta argazkiak ikusteko: [barren.eus](http://barren.eus) webgunean.



**LANA**

**Eskaerak**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, etxe zein lantegietan. Sukalde laguntzaile moduan ere egingo nuke lan. Esperientzia daukat. Berehala hasteko prest.  
**604 205 271**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, etxe zein lantegietan. Sukalde laguntzaile moduan ere egingo nuke lan. Esperientzia daukat. Berehala hasteko prest.  
**643 708 616**

Eskola partikularrak ematen ditut, LH eta DBH mailetan. Etxeko lanak egiteko laguntza eskaintzen da. **626 420 080**

Adinekoak zaintzeko eta etxeko garbiketak egiteko prest nago, orduka. Titulu soziosanitarioa daukat. Berehala hasteko prest.  
**638 857 100**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia daukat.  
**688 857 566**

Adinekoak zainduko nituzke, orduka. Esperientzia handia daukat. **641 756 213**

**BESTELAKOAK**

Ezkontza eraztun bat agertu da Aita Agirreko kultur kafean. Falta igarri duenak tabernan izango du zain.

**LOKALAK**


Taberna alokagai Mendaron, Mendarozabal auzoan. Informazio gehiago pribatutik.  
**695 781 673**

Merkatu txikiko iragarkiak bi astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.


Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€.  
 Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

**BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:**

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€.  
 Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

|  |   |
|--|---|
|  <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas<br/>         Euzkoako Enkain Administrazioaren Kontseilua</p>  <p><b>ROSA Mª PINTADO</b></p> <p><i>Etaldeen Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p><b>660 969 679</b><br/> <b>rosapf@telefonica.net</b></p> | <p><b>Gure komunitatean obra handi bat egin nahi dugu. Horretarako aldordioak jarri beharko ditugu, eta jakina, arrisku egoera batzuk ere sor daitezke langileentzat. Jakin nahiko nuke zer nolako baldintzak betetzea exijitu behar diogun kontratistari, ez dezan gero hark edo beste inork komunitatea egin sor daitezkeen arriskuen erantzule.</b></p> <p>Nire iritziz, bizilagunak ez daude behartuta inolako dokumenturik eskatzera eta ez dute zertan lan istripuen prebentzioaren alorrean gerta daitezkeen ezbeharren erantzukizunik hartu behar. Izan ere, erantzule bakarra obra egiteko kontratatutako enpresa da. Lan istripuren bat gertatuz gero, bizilagunen komunitatea ez da ezeren erantzule izango. Berdin dio kontratatutako enpresak lanerako baldintzak bete ez baditu edoeta istripuen prebentziorako planik ez badu.</p> <p><b>OHARRA: Bizilagunen komunitateak enpresarekin edo enpresa-ugazabarekin dauka lotura, baina ez enpresa horren agindutara lanean ari diren langileekin. Teknikoki ez dago subkontratazio harremanik kontratatutako enpresarentzat lanean ari diren langile horiekin</b></p> <p><b>GOAR</b> AHOLKULARI KOLABORATZAILEA<br/>         San Bartolome, 2</p> |
|--|---|



Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Mara!** 7 urte! Primeran pasatu genuen zure urtebetetze eguna! Patxo handi bat, etxeko guztien partez.



Zorionak, **Lea!** Bihar urtetxo bat! Primeran pasatuko dugu! Muxu handi handi bat.



Zorionak, **June,** 7 urte bete dituzulako! Ospakizunez betetako eguna dugu gaur! Egun polita pasa eta muxu handi bat etxeko guztien partez!



**Andde,** txapeldun! Zorionak etxeko guztien partez.



Hemen zure txokoa: *Ihartek, 365 outfit!* Aukeratu al duzu zure eguna ospatzeko *outfit*a? Etxekoekin, lagunekin, euskaltegioekin, lanekoekin... Ez zaizu merkea irtengo 27.a!



Zorionak, **Paul,** asteartean 4 urte bete zenituelako, eta zorionak, **Marko,** igandean 8 urte beteko dituzulako. Muxu handi bana, etxekoekin eta lagunengatik partez.



Zorionak, **Nora!** 3 urtetxo! Askok maite zaitugu, aitatzok eta amatxok.



Zorionak, **Joar!** Atzo 5 urtetxo egin zenituelako. Askok maite zaitugu, *bixito!* Gurasoen eta bereziki, amama Encarniren partez.



Zorionak, **bikote,** gaur 6 urte bete dituzuelako. Ondo pasa zuen eguna! Izebaren partez.

Erretratu bakarrek agurra: 4,50€.  
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO  
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarrek agurra: 3,50€.  
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



**Gabonak hurbiltzen ari dira...**



**ARAMBURU**

Erosi zure oparia Arambururen eta **250€ko 2 baleren zozketan parte hartu!**



**250€**



**250€**

 @aramburubitsidenda

 943 742 535





## 13 BARIKUA

**16:30** Odol ateratzea, Elgoibarko Jubilatuen Biltokian. Txanda hartzeko: 623 328 408

**18:30** Erakusketa: Gemma Monreal. Hilaren 21era arte, Kultur Etxean.

**19:00** Kontzertua: Amorante. Herriko Antzokian.

## 14 ZAPATUA

**10:30** Eskola Kiroleko xake txapelketa. Zubi Ondo elkartek Juan Mugertza kalean duen lokalean.

**16:00** Gabonetako igeriketa lehiaketa. Olaizaga kiroldegian.

**20:30** Mikel Urretagoiena bateria-jolearen M.U.T (Mikel Urretagoiena Trio) taldearen kontzertua Mendaroko San Agustin kulturgunean.

## 15 DOMEKA

**09:30** Mendi irteera: Elosu-Pol Pol inguruetara. Morkaikok herriko ikastetxeekin antolatuta. Mintxetako aparkalekutik.

**10:00** Diana, Elgoibarko dultzaineroekin. Elgoibarko kaleetan zehar.

**10:00** Jaiotza lehiaketa. Aita Agirre kulturgunean aurkeztu beharko dira lanak, 12:00ak aurretik. Lan guztiekin erakusketa egingo dute urtarrilaren 7ra arte.

**10:00** Txangoa: Eibarko armagintza museora. Altzolako Auzo Taldeak antolatuta. Frontoian batuko dira. Izena emateko: 635 753 447

**10:15** Taldekako xake txapelketa, Tomas Conderen omenez. Zubi Ondo elkarteak Juan Mugertza kalean duen lokalean.

**12:30** Udal Musika Bandaren kontzertua. Herriko Antzokian. Zuzendaria: Gorka Mujika Urain.

1. 'La Primitiva'. Pasodoblea. (J. Penders).

2. '1.812. Obertura'. (P. I. Tchaikovsky).

3. 'Christmas on Broadway'. (J. Higgins).

4. 'Mesias sarritan'. Gabon kanta. (B. Ercilla).  
Bakarlaria: Txomin Maidagan Ruiz.

5. 'Haurtxoa Seaskan'. (G. Olaizola).

Bakarlaria: Nora Mujika Pikabea

**14:30** 'Auskalo zeinek jarriak' bertso bazkaria, Mendaron, Aizpe Elkartean. Sarrera hartutakoentzat.

**15:00** Banakako xake txapelketa: Zubi Ondo elkarteak Juan Mugertza kalean duen lokalean.

## 16 ASTELEHENA

**18:00** Hausnarketa taldea: 'Emakume erresilientea'. Loredi Salegik gidatuta, Lilan, ele bietan.

## 17 MARTITZENA

**18:00** Literatura tailerra, Jasone Osororekin. Lilan, gaztelaniaz.

**19:00** Liburuen aurkezpena: Uxue Alberdik eta Miren Amurizak euren azken lanak aurkeztuko dituzte. Pitxintxun.

**19:00** Ameikutz musika eskolako en jaialdia. Mendaroko Musika Eskolan.

## 18 EGUAZTENA

**17:00 - 18:00** Errege Magoen desfilearako izen-ematea. Aita Agirre kulturgunean.

**18:00** Hitzaldia: 'Merezi dudan moduan bizi naiz?'. Maitatu'. Haizeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du. Lilan.

**18:30** Hitzaldia: Osasungintza publikoa. Duintasunak eta 24/7 plataformak antolatuta, Kultur Etxean.

**19:30** Kirol federatuaren sari banaketa. Herriko Antzokian.

## 19 EGUENA

**17:00 - 18:00** Errege Magoen desfilearako izen-ematea. Aita Agirre kulturgunean.

**19:00** Inazio Bereziartua Dantza eta Musika Eskolako en Eguberrietako kontzertua. Herriko Antzokian.

### Zinea (Herriko Antzokian)

#### 'Verano endiciembre'

14 zapatua:

19:00 / 22:15

15 domeka: 19:00

16 astelehena: 21:00

#### 'Robot salvaje'

15 domeka: 16:30



**2024ko botika ordutegiak:** 09:00-13:00 / 16:00-20:00  
 GUARDIAK:  
 Egunez: 09:00-22:00  
 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

**ABENDUA**

|               |               |
|---------------|---------------|
| 13 BARIKUA    | Arriola       |
| 14 ZAPATUA    | ■ Fernandez   |
|               | ■ Barrenetxea |
| 15 DOMEKA     | ■ Fernandez   |
| 16 ASTELEHENA | Yudego        |
| 17 MARTITZENA | ■ Oruesagasti |
| 18 EGUAZTENA  | Barrenetxea   |
| 19 EGUENA     | ■ Soto        |
| 20 BARIKUA    | Garitaonandia |

2024 urte guztian, gauzez:  
 Lekunberri Alberdi, Mikel Isasi, 31 (Eibar)  
 943 204 230

|   |  |  |
|---|--|--|
| ■ Fernandez:<br>Herriko<br>Enparantza,4<br>Garagartza<br>(Mendaro)<br>943 756 142 | ■ Soto:<br>Rekalde, 1<br>(Soraluze)<br>943 751 638 | ■ Oruesagasti:<br>Kalebarren, 9<br>(Soraluze)<br>943 751 384 |
|---|--|--|

**Jarri ezazu zure publizitatea  
 BARREN astekarian edo  
 www.barren.eus webgunean**

**943 743 704  
 688 769 657**

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus  
 Aita Agirre Kulturunea, 3. 3. ezk. - 20670 ELGOIBAR

*Geldetu prezioak eta gustura erantzunago dirugu.*

**EXPRESS ESKAINTZAK!**

**BOSCH SMS25AI05E  
 ONTZI-GARBIGAILUA**



**499 €**

- 12 zerbitzu
- Teknologia aktiboa
- Ecosilence motorra
- 24 ordura arteko programazio geroratua
- Variospeed sistema aztamen aurkako inox

**MILARBIRE**  
 Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es  
 Dendako prezioak. Produktuak agortu arte

*Tchin Tchin*

**2 BETAURREKO  
 GEHIAGO EURO BAT  
 GEHIAGO ORDAINDUTA\***

ETA HIRUGARREN BAT  
 ZURETZAT EDO OPARITZEKO

\* Inoiz baldintzak ootikan edo afflelou.es helbidean. Eskaintza honen 2024/12/31tik 2025/1/31ra arte balio du. Espainiako eta Andorrako Alain Afflelou optketan.

**SAN BARTOLOME KALEA, 10  
 ELGOIBAR - 943 74 37 34**

**ALAINAFFLELOU**

Eskatu hemen  
 hitzordua  
 afflelou.es





Argazki zahar hau Juani Iriondo mendaroarrak ekarri digu erredakziora. 1934an Garagartzako eliza aurrean egindako argazkia da, Juaniren osaba Jose Iriondo (Garizurieta baserriko semea) eta Maria Elortza (Kortaberri baserriko alaba) ezkondu ziren egunekoak. Juani beraren aita, Matias Iriondo, izan zen ezkontideen aitabitxia, lehen lerroan ezkerrengoan ageri dena.

Lehen lerroan, ezkerretik eskuinera: Matias Iriondo (✠), Jose Iriondo (✠), Maria Elortza (✠), eta ustez, Paula Esnaola Elortzukoa (✠).



### *María Elena Alberdi Salaberria*

2024ko abenduaren 11an hil zen, 80 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



# Denolan

ASESORIA EMPRESARIAL  
AHOLKULARITZA

Denolanek 30 urte baino gehiago daramatza edozein eremutako enpresentzat eta autonomoentzat lan, zerga edo kontabilitate aholkularitzaren zerbitzua ematen, erabat haien neurria.



Muzategi, 1 - Eibar  
943 20 16 80



Pedro Migel Urruzuno, 31 - Elgoibar  
943 74 18 00

Lan-aholkularitza ■ Zerga-aholkularitza  
Kontabilitateko aholkularitza ■ Merkataritza-aholkularitza

 **SIURLAN**  
CORREDURÍA DE SEGUROS  
ASEGURU-ARTEKARITZA

# G R E M I O E N G I D A



**PINTURA**

**BIOK**  
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

**943 741 552**  
**606 431 120**

biok@biokdekorazioa.com

**LEIHOAK**

**ODRI**

ATEAK ETA LEIHOAK

Aluminio eta PVC aroztegia

Mota guztietako leihoak; salmenta eta konponketak  
Ateak, leihoak, pertsiak, barandilak,  
eltxo-sareak eta toloak jarzen ditugu.

**662 234 609**

odrileihok@gmail.com  
Sagar Erika Kalea 2, 20190 SORALUZE

**AROZTEGIA**

**BIENA, S.L.**  
AROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16  
tel/fax. 943 743 116  
www.biena.eu  
info@biena.eu

f

**ITURGINTZA**

**PAGOAGA S.A.**

BULEGOA ETA ERAKUSKETA

Pedro Migel Uruzuno, 8  
**943 740 512**  
fax: 943 743 565  
tienda@pagoagasa.com  
www.pagoagasa.com

**BILTEGIA**  
San Antolin, 13 - ELGOIBAR  
taller@pagoagasa.com  
**943 740 279**

**IZURRIEN KONTRAKO  
TRATAMENDUAK**

**PLAGANATURA**

Cuidando lo Salud Ambiental

**618 198 760**

ivan@plaganatura.eu  
www.plaganatura.eu

**AROZTEGIA**

**iraolagoitia**

aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutx-gain industrialdea, 9  
20850 Mendara  
**943 756 112**  
**636 497 485**

www.iraolagoitia.com

**ITURGINTZA**

**SANTANA**

Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Utazandi kalea, 17, behea  
Elgoibar

**943 740 530 / 605 714 905**  
santanaiturgintza@gmail.com

**KONPONKETAK**

**LODOSO KONPONKETAK**

- ✓ Leihoak
- ✓ Pertsianak
- ✓ Arozteria metalikoa
- ✓ PVC arozteria
- ✓ Eltxo-sareak

Errosario kalea, 13, behea  
lodosokonponketak@gmail.com

**943 247 659**  
**617 585 330**

**AROZTEGIA**

**IMAR**  
AROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behea  
**943 531 471**  
**609 054 978**  
carpinteriaimar@hotmail.com  
@carpinteria\_imar

**Gidan**  
agertzearen onurak!

**23,82€**  
hilera

**12**  
aldiz urtean

**4.700**  
ale astero

23,82 Eren truke, hilero, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu BARREN astekarian.

BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleihu ikusia.

4.700 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron DOAN.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.

**943 743 704**  
**688 769 657**

barren.publi@elgoibarkoizarra.eu

Alta Agirre Kulturunea, 3, 3. ezk  
20870 ELGOIBAR